



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA OHARRA

BGP-K BARIK-EN 60.000 KARGATZE BAINO GEHIAGO EGIN DITU SAKELAKO TELEFONOAREN BIDEZ

- **30.100 erabiltzailek hori egiten uzten duen “app”-a eskuratu dute dagoeneko**

Bilbon, 2016ko azaroaren 3an

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) “Barik NFC” aplikazioaren bidez 60.000 kargatze baino gehiago egin dira, 400 bat egunean batez beste. 30.100 erabiltzailek doako “app” hori dagoeneko eskuratu dute, Android sistema eragilea duten sakelako telefono batetik Barik txartela kargatzeko aukera ematen duena.

Martxoaren 1etik, beraz, Barik txartela sakelako telefono adimenduen bitartez karga daiteke. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) Google PlayStore-n aktibatu zuen “app” hori. Hari esker, denbora laburrean kargatzeko milaka puntu berri erantsi ahal izan dira, eta Bizkaian banatutako 800 fisikoei gehitu zaizkie (tabako dendak, kioskoak, kutxazainak, geltokiak...). Aplikazio berriari esker, erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz, edozein tokitatik eta eguneko edozein ordutan. Horrez gain, geratzen den saldoari, azken mugimenduei eta beste gauza askori buruzko informazioa lortu ahal izango du.

1.500.000 Barik txartel

Txartelen sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPk; hain zuzen, proiektua BGPren politika horren barruan sartzen da. Lortutako datuei erreparatuz gero, arrakasta handia izan duela esan daiteke; izan ere, hasierako itxaropenak gainditu egin dira. Aplikazioa abian jarri aurretik, Barik txartelaren ohiko puntuetan kargatu ahal zitekeen txartela (Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe –FEVE barne-, Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako dendak, kioskoak, merkataritza lokalak eta BBK-ko kutxazainak); eta abendutik aurrera webgunean bertan (ctb.eus) ere egin daiteke. Gaur egun, 1,5 milioi Barik txartela daude.